

“ORDEZKO BIDE” ETA PROZESU KONPONTZAILEEN ARTEKO HARREMANA

“ORDEZKO BIDEAK”	PROZESU KONPONTZAILEAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Prozedurarik gabe onartutako neurri hezigarriak ▪ Adiskidetzea ▪ Konponketa ▪ Zuzenketa familia esparruan ▪ Elkarbizitzarako heziketa konpromisoa 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Elkarrizketa hezigarria, lankidetzaz izaerakoa: konpromisoak lortu nahi dituzkenez kaltetuaren inplikazio zuzenaren bidez. ▪ Bitartekaritza konpontzailea: izaera konpontzailea duen akordioa lortzen du. ▪ Batzar komunitarioa: pertsona kopuru handiagoa inplikatzen du, ez bakarrik arau-haustearen protagonista zuzenak; familiak eta komunitateak funtsezko eginkizuna betetzen dute.

1 Egoera

Josuk eta Markelek Joanari eraso egin diote institututik irtetea, kalean, eta eztabaida sutua izan dute berarekin. Bi lagunek Jokinekin, bien lagunarekin, izandako jokabidea aurpegiatu diote. Joana eta Jokin elkarrekin ibili dira ikasturteko lehen hiruhilekoan, baina Joanak harremana etetea erabaki zuen, beste mutil bat gustatzen baitzitzaion.

Josuk eta Markelek mehatxatu egin dute Joana, astindu egin dute eta biolontxeloak kendu eta ibaira bota diote, beste ikaskide batzuen eta autobuseko begiralearen aurrean.

2 Egoera

Astelehenean lehen orduan, ikastetxeko aurrealdea grafitiz eta mezu lizunez beteta agertu da. 3. DBHko ikasle den Ikerren aitak zuzendaritari deitu dio, egun horretan bertan, esateko jakin badakiela bere semea dela errudunetako bat; izan ere, auzokide bat lekuko izan baitzen bere terrazatik eta bere telefonoarekin grabatu baitzuen lau mutil egiten ari zirena. Ikerrek ez du esan zein ziren beste lagun errudunak. Ikerren aitak hitzordua eskatu du zuzendaritzarekin eta jakinarazi du neurri gogorak hartuko dituela semearekin, honelakorik berriro gerta ez dadin. Hasteko, semea agindu dio astelehen horretan bertan zuzendaritzara joateko grafitien arduraduna dela esatera.

3 Egoera

Katalinek, lehen hezkuntzako 6. mailako ikasleak, oso arau-hauste larria egin du. Azkenaldian, gorabehera ugari izan ditu bere "lagunik onenetakoarekin", Amaia. Aurreko astean, Katalinek Amaiaren "twenti"ko gakoetara sartzea lortu zuen eta bere identitatea faltsututa, mezu bat bidali dio bere buruari, irainez eta mehatxu larriz bete.

4 Egoera

Iñakik lorontzi bat bota du leihotik Hamid bere adiskidearen gainera. Hau ospitalera eraman behar izan dute, nahiz eta, zorionez, ez duen lesiorik izan, besterik gabe urratu batzuk oin batean.

5 Egoera

Kevinek, lehen hezkuntzako 4. mailako ikasleak, bere tutorearen argazki bat zintzilikatu du interneten, bera ohartu gabe gelan ateratakoa. Argazkia manipulatu egin du eta mendebalde amerikarreko aspaldiko kartel baten itxura du, eta tutorearen argazkiaren azpian "harra wanted" jarri du.